


SAN JOSE de ANTXIETA, SAN INAZIOREN SENIDE

Zenon Uriguen, Pasiotarra

Franzisko aita santuak kanonizatu dau azken urteotan, San Jose Antxieta Brasilgo mixiolari ospetsua, Loiolako Inazioren senide, Juan de Antxieta semea, Azpeitiarra, Urrestilla, Loiolako Inazioren senidea. San Jose Tenerifen jaioa dogu eta bere esanez "Bizkaino" dala adierazten dau.

Bere aita Juan Antxieta 1520 urtean, erregearen aginduak bere idazkari izentatu dau. Sortzi urte geroago Kanarias´era bialdua izan da epaitegiako Pedro Fernandez de Lugo´ren arazoak konpontzera. 1530 urtean epaitegiak amaiturik, Juan La Lagunan biziko da eta ezkondu zan alargun pobre bategaz eta bederatzi seme alaba izan ziran. Jose gazteak laster artu dau erabaki eta burubidea, mixiolari izatea. Zelan bete asmo eder ori? San Inazio bere senidearen jarraitzale izateko eta Jesusen Lagundiaren laguntza ta babesa eskuratzeko Coimbra Jesuiten Ikastetxe nagusira zuzenduko da ikasteak egin eta Jesuita izateko.

1553 urtean Brasilera doa eta itxasontzia erdi ondandian ikusirik itxas porturik ez dagon tokian lurreratu ziran. Aurrean baso eder-zabalak. Zer egin? Oraintxe da, bai, Joserentzat une egokia eta erabakikorra bere fedea eta giza-serbitzua Kristoren antzera bizi eta iragarritzeko.



Gauza bat dago argi: emen luzaro egon zala Indioen artean, euren moduan bizirik. Ara emen bere gogoa: alegiñak egin euren izkuntza eta oiturak bizitzeko, leen eta bein ikusi eta ikasi. Ez dauko irakasle izateko ardurarik ta bai ikasle izateko. Azkar ikasi dau euren izkuntza. Indiar Tupitarren izkuntzan gramatika bat argitaratu dau eta idatzi-irakurten geienak ikasi dabe. Eta arrigarria! Jose Antxieta, talde batekin, fundatu dabe Sao Paulo. Emen batuko ditu basoetako indiarak eta izango dabe beste bizigiro bat: Eskola, alkartasuna, lanbidea, etxegintza, lugintza, abelzaintza etb. Ekintza onen ondoren bere entzute ona eta ospea asko zabaldu zan Brasilgo erri ta agintaritzan. Eta zer? Indioen arteko eztabaidak eta banaketak zuzendu eta bakea egiteko "bitarteko" jarri eben. Zorionez bake bidera etorri ziran jauntxoak eta menpekoak. Azkenik Jesuiten artean probintzial izendatua izan zan. Ondo dago berak esana "Ni bizkaino naz" Eta obeto datorrio: "Ni izango naz kristau santua, Kristoren Mixiolaria eta gizakiaren serbitzalea"